



GOBERNU BILERA

**Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak**

CONSEJO DE GOBIERNO

**Dossier de Prensa
Acuerdos destacados**

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriak 25

Vitoria-Gasteiz, 25 de octubre de 2022

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

EUSKO JAURLARITZAK MAE INBERTSIOAREN LAGUNTZEN ESPARRUA OSATZEN DUEN ARDOINB LAGUNTZA ARGITARATU DU, 1.110.000 EUROKOA

- **Mahastizaintza- eta ardogintza-enpresentzat, ekoizleen elkarteentzat eta lanbide arteko erakundeentzat**
- **Laguntza minimis laguntzen araubideak arautzen du**

Eusko Jaurlaritzak ArdoINB laguntza onetsi du, 1.110.000 euroko zuzkidurarekin, 2022ko MAE Inbertsioa programaren finantzaketa handitzeko, eta, hala, nahiz eta betekizunak bete, aurreko deialdian funtsak agortzeagatik laguntzak jaso ezin izan dituzten enpresen eskabideei erantzun ahal izateko.

Laguntza honen xedea da mahastizaintza- eta ardogintza-sektorean egiten diren inbertsioei laguntzea, enpresen errendimendu globala hobetzeko, merkatuaren eskakizunetara egokitzeko eta lehiakortasuna areagotzeko.

Laguntza Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren agindu batek arautzen du eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorraren kontura finantzatuko da osorik. Hala, enpresa bati emango zaion laguntzaren zenbatekoa, gehienez ere, 200.000 eurokoa izango da hiru zerga-ekitalditako edozein alditan.

Enpresa hartzaileak honako hauek dira: mahastizaintza- eta ardogintza-enpresak, mahastizaintza eta ardogintza arloko ekoizleen erakundeak, bi ekoizle edo gehiago biltzen dituzten elkarteak (izaera juridikokoak), eta lanbide arteko erakundeak.

Diruz lagundu daitezkeen kostuak

Honako ekintza hauen kostuak lagundu daitezke diruz:

- Ondasun higiezinak eraikitzea, erostea edo hobetzea.
- Makina eta ekipamendu berriak erostea, produktuaren merkatuko balioa bitartean.
- Letretan jasotako gastuei lotutako kostu orokorrak, hala nola arkitekto, ingeniari eta aholkularien ordainsariak eta bideragarritasun-azterlanak, inbertsio-eragiketarako onartutako aurrekontuaren % 8ko mugarekin.
- Ordenagailuetarako euskarri logikoak erostea edo garatzea; patenteak, lizentziak, egile-eskubideak erostea eta marka kolektiboak erregistratzea.

Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea hamabost egunekoa izango da, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik aurrera, eta Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako titularrari zuzenduko zaizkio. Euskadi.eus egoitza elektronikoa aurkeztuko dira, eta eskabideak, justifikazioak eta gainerako dokumentazioa nola izapidetu jakiteko xehetasunak Euskal Autonomia

Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa honetan eskura daitezke:

<https://www.euskadi.eus/servicios/> (Ref: 1091804)

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/> (Ref: 1091804)

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

400.000 EURO NEKAZARITZA-SEKTOREKO LANBIDE- ETA ENPRESA-ELKARTEEN JARDUERAK FINANTZATZEKO

Eusko Jaurlaritzak, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren aginduaren bidez, nekazaritza-sektoreko lanbide- eta enpresa-elkarte eta federazioentzako 2022ko laguntzen deialdia egin du. Gehieneko kopurua 400.000 eurokoa izango da; kopuru horren % 80 LGENF funtsetatik etorriko da, eta, gainerakoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura izango da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekiko elkarrizketa sozialaren funtzioak garatzen laguntzeko eta haren jardueri laguntzeko, jarduerak gauzatzean egindako gastuak hartuko dira diruz lagundu daitezkeen gastuzat, besteak beste:

- Jarduera sindikaletarako lokalak mantentzea.
- Zeregin sindikaletan diharduten langileak izateko lan-kontratuak mantentzea.
- Nekazaritza-sektoreko profesionaleri aholkularitza eta informazio sindikala emateko langileekin lan-kontratu berriak formalizatzea.
- Gastu arruntak, ez inbertsiokoak.

Sindikatu izaera duten Nekazaritzako Erakunde Profesionalak izan daitezke onuradun, baldin eta, legean ezarritako baldintzak beteta, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-sektorearen interes orokorrak ordezkatu eta defendatzea xede badute eta nekazaritzako profesionalak osatzen badituzte, diharduten nekazaritza-ekoizpenaren azpisektorearen arabera bereizketarik egin gabe.

Eskabideak aurkeztea

Eskabideak Agindua argitaratzen denetik 2022ko azaroaren 30era bitartean (egun hori barne) aurkeztuko dira. Bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira, honako helbide elektroniko honetan:

- http://www.euskadi.eus/ayudas_appa/
- http://www.euskadi.eus/laguntzak_naep/

Ekonomia eta Ogasuna

EUSKADIKO 2023KO AURREKONTUEN PROIEKTUAK 14.250 MILIOI EUROKO ZENBATEKOA DU, GIZARTE-POLITIKA ERAGINKORRAK BERMATUKO DITU ETA JARDUERA EKONOMIKOA BULTZATUKO DU, ENPLEGUA SORTZEKO

Gobernu Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko 2023ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorren Proiektua onartu du gaur. Aurrekontuek 14.250,7 milioi euroko zenbatekoa izango dute, eta, beraz, % 8,7ko igoera izango dute 2022an onartutakoekin alderatuta (1.142 milioi euro gehiago). Aurrekontuen proiektu horren % 76 (10.254,6 M€) gizarte-politiketara bideratuko da. Aurrekontu-igoerarik handiena izango duten Sailak Osasuna eta Hezkuntza izango dira, eta, haien atzetik, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioa, Lana eta Enplegua eta Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak. Eusko Jaurlaritzak eutsi egin dio inbertsio publikoaren aldeko apustu irmoari, eta 1.800 milioi eurotik gorakoa izango da (2022an baino % 14,8 handiagoa). Halaber, I+G+Bra bideratutako aurrekontuak % 12ko igoera izango du, eta 658,4 milioi eurora iritsiko da (2022an baino 70,6 milioi euro gehiago).

2023ko aurrekontua Europako MRR Funtsetako diru-sarrerak jasotzen dituen lehena da. Diru-sarrera horiek 260 milioi euroko zenbatekoa dute, eta sailek une honetan Europarekin hartutako konpromisoak betetzeko gauzatu behar dituzten jarduketetara bideratuko dira.

“Aurrekontuen proiektu honen oinarriak oso sendoak dira, eta haren kaudimenak bermatzen du Euskadi gai izango dela bere zerbitzu publikoen mailari eusteko, jarduera ekonomikoa bultzatzeko, enplegua sortzeko eta bizi dugun egoera ekonomiko eta sozial nahasiari aurre egiteko”, adierazi du Azpiazuk.

2023ko aurrekontuak, halaber, genero-berdintasunarekiko konpromiso irmoa jasotzen du, eta aurrekontuen % 17 bideratuko da horretara (2022ko aurrekontuan baino puntu-erdi gehiago). Gainera, konpromiso hori politika publiko guztietara eraman nahi da.

Urriaren 28an, aurrekontuen proiektua Eusko Legebiltzarrean erregistratuko da, eta sailburuek agerraldia egingo dute azaroaren 2tik 4ra bitarte. Agerraldi horien ondoren, EH Bildu, Elkarrekin Podemos eta PP-Cs taldeekin balizko aliantzak kontrastatzeko aukera irekiko da. Proiektua onartzeko aurreikusitako eguna abenduaren 23a izango da. “Espero dut guztiok guztion ongiari lehentasuna ematea, erantzukizuna, errealismoa eta kudeaketa publiko zentzuduna eta zalapartarik gabea beharrezkoak diren garai nahasi hauetan”, adierazi du sailburuak.

1. Zurrunbiloak mundu osoko ekonomian

Egoera ekonomikoari dagokionez, sailburua nazioarteko egoera ekonomiko

konplexuaz aritu da, eta duela bi aste Euskadiko Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak eskainitako magnitudeak aipatu ditu.

Nazioarteko Diru Funtsak azpimarratu duenez, munduko ekonomiaren herena baino gehiago uzkurto egingo da aurten eta datorren urtean, eta hiru ekonomiarik handienek (Ameriketako Estatu Batuek, Europar Batasunak eta Txinak) geldirik jarraituko dute. Egia da, halaber, aurreikuspen horien arabera 2022an % 3,2ko hazkundera espero dela munduko ekonomian, eta, beraz, ez dagoela aldaketarik uztaileko aurreikuspenarekin, beherantz zuzendu delako Ameriketako Estatu Batuetako tasa, baina puntu-erdian igo da euroaren eremurako espero den hazkundera (% 3,1).

2023. urterako, Nazioarteko Diru Funtsaren beheranzko berrikuspena bi hamarrenekoa da mundu osoko ekonomian, eta horrek bete-betean hartzen gaitu eraginpean, euroaren eremurako berrikuspena zazpi hamarren txikiagoa baita uztaileko aurreikuspenarekin alderatuta, eta ia bi puntu txikiagoa apirileko dokumentuarekin alderatuta.

Espainiako Estatuak % 1,2 haziko da. Nolanahi ere, aldakuntza-tasa horiekin ezin da esan geldialdian gaudenik, herrialderik kaltetuenak izan diren Alemaniaren eta Italiaren kasuan izan ezik (-% 0,3 eta -% 0,2, hurrenez hurren).

Inflazioari dagokionez, Euskadiko iraileko KPIa % 8,5era jaitsi da, eta, beraz, ia bi puntutan egin du behera aurreko datuarekin (% 10,3) alderatuta. Azpiko inflazioa, berriz, hiru hamarren jaitsi da eta % 6,1era iritsi da. Nolanahi ere, lehen beherakada izan da 2021eko apirilaz geroztik. “Hori albiste ona da, eta beheranzko joera horretan jarraitzea espero dugu”, adierazi du Azpiatzuk.

Eusko Jaurlaritzak bere hazkunde-aurreikuspenak berrikusi zituen irailean, eta AIREFen bermea dute. Haien arabera, % 4,3ko hazkundera izango da 2022an, eta % 2,1ekoa 2023an. Pandemiaren aurretik, euskal ekonomiaren hazkunde potentziala % 1,8tan zenbatesten zen, eta datu hori baliagarria izan daiteke zifra berriak haztatu ahal izateko.

Enpleguaren arloan, egungo egoerak langabezia-tasaren jaitsiera esanguratsua iragartzen du. Izan ere, % 8,8ra iritsiko da aurten, batez beste, eta % 8,3ra jaitsiko da datorren urtean. Horrek esan nahi du 26.000 lanpostu inguru sortuko direla aurten, eta 12.000 inguru datorren urtean.

“Beraz, nolabaiteko lasaitasuna, nahiz eta, duela bi aste esan nuen bezala, zentzurik gabeko gerra baten haize-orratzak izaten jarraitzen dugun, eta haren ondorio ekonomikoak guztion kalterako diren”, adierazi du.

2. Ekonomia- eta finantza-esparrua

Diru-sarrereri dagokienez, foru-aldundien ekarpenak 11.901 milioi eurora iritsi dira, eta, beraz, 2022ko eta 2023ko aurrekontuak alderatuta, zifra 897 milioi eurotan igoko litzateke (+% 8,2tan). Hala ere, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak urriaren 14an aurreikusitako itxierarekin alderatuta, 354 milioi eurotan igoko litzateke (+% 3).

Europako Funtsetatik (EGIF, EGEF, NBEUF, LGENF eta FEMP) iritsitako zenbatekoa 93 milioi eurokoa da, eta MRR funtsetako diru-sarrerei dagozkien 260 milioi euro sartu dira. Gainera, aurrekontu-legeak haien txertatzea jasoko du partida gehiago iritsi ahala.

Aurrekontu-egonkortasuneko helburuek ezartzen dutenez, EAeko defizitak % 0,6koa izan behar du 2023an. 2023ko aurrekontuen arabera, zorpetze garbia 419,5 milioi eurokoa izango da, eta amortizazioak, berriz, 778 milioi eurokoak. Beraz, zorpetze gordina (zorpetze garbia+amortizazioak) 1.197,5 milioi eurora iritsiko da. Bestalde, 2023ko zor publikoak BPGaren % 13,5ekoa izan behar du gehienez (11.075 milioi euro).

3. I+Gko inbertsioa

Eusko Jaurlaritzak % 12tan igoko du I+G+Brako aurrekontua, eta 658,4 milioi eurora iritsiko da. Beraz, 70,6 milioi euroko igoera izango da 2022. urtearekin alderatuta.

I+G-KO INBERTSIOA 2023AN		
SAILAK	M/€	
Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena	306,6	<i>Teknologia, nekazaritza- eta arrantza-arloko I+Ga, eraldaketa digitala, energia berriztagarria eta hidrogenoa, bioteknologia...</i>
Hezkuntza	206,1	<i>Ikerketa eta ikertzaileak, Unibertsitatea, material aurreratuak, komunikazio kuantikoa...</i>
Osasuna	68,2	<i>Osasun-ikerketa eta Osakidetzako ikertzaileak, eraldaketa digitala...</i>
Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	24,6	<i>Administrazio elektronikoa eta eraldaketa digitala eta ekintzaitza berritzailea</i>
Berrikuntza-funts estrategikoa	52,9	<i>Berrikuntza-funtsa hainbat sailetan</i>
	658,4	% 12,02ko igoera (2022an baino 70,6 milioi euro gehiago)

4. Sailen arabera banaketa:

Osasuna: 4.638,9 M€ (+256,9 M€): igoera hori Osakidetzaren 3.565 milioi eurora (+202 M€) igo delako, ikerketarako aurrekontua 2,4 milioi eurotan igo delako (14,5 M/€-ra iritsi da) eta farmaziako gastua 559 milioi eurora (+29 M€) iritsi delako gertatu da.

Hezkuntza: 3.477,7 M€ (+242,7 M€): Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zenbatekoa 1.133 milioi eurora (+56,9 M€) iritsi da, Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako zenbatekoa 1.337,4 milioi eurora (+196,9 M€), eta unibertsitate-irakaskuntzako, berriz, 374,9 milioi eurora (haietatik, 362,9 milioi euro UPV/EHUri dagozkio, hau da, 22,9 milioi euro gehiago).

Lana eta Enplegua: 1.107,8 M€ (+171,6 M€): Sail honen partida handiak honako hauek dira: Gizarte Inklusioa, 663,8 milioi euroekin (+229,7 M€), Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (312 M€) barnean hartuta, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera, 173 milioi euroekin, eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (hileko 300 euroko zenbatekoa duena), 80 milioi euroekin. Lanbideri 1.091,9 milioi euroko partida dagokio.

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena: 849,8 M€ (+72,4 M€): Sail honen barruan, igoerarik handiena Industria Garapenari dagokio, eta 137 milioi euro bideratuko dira horretara (+31 M€). Honako hauek xede dituzten partidak nabarmentzen dira: Teknologia (211 M€); Nekazaritza eta Landaren eta Itsasertzaren Garapena (93,9 M€); Elikagaien Sustapena eta Kalitatea (60,3 M€) eta Ingurumenaren Babesa (44 M€). Spri-k 129 milioi euroko aurrekontua izango du.

Segurtasuna: 746,3 M€ (+21,2 M€): Sail honetan, Ertzaintzara bideratutako partida 709,2 milioi eurokoa da, eta, beraz, 23 milioi eurotik gorako igoera izan da.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak: 754,4 M€ (+189,9 M€): Europako MRR funtsen inpaktua nabaria da, eta 62,3 milioi euroko zenbatekoa bideratuko da garatu beharreko programetara. Horrekin batera, Azpiegituren eta Garraio Kudeaketaren Programa, 321,8 milioi euroekin (+24,7 M€) eta Etxebizitza, 184 milioi euroekin, nabarmentzen dira. Euskal Y-rako eta Hegoaldeko Saihesbiderako aurrekontua 135 milioi eurokoa da. Gaztelagun programara bideratuko den zenbatekoka 16 milioi eurokoa izango da, Bizkaiko Garraioen Partzuergorako ekarpena 54,9 milioi eurora iritsiko da, eta ETSk 115 milioi euroko kapital-ekarpena jasoko du Saitetik.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak: 637,8 M€ (+114,7 M€): Emakundek 7,8 milioi euroko aurrekontua izango du, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak 50,7 milioi eurokoa, Immigrazioan ia bikoiztu egingo da aurrekontua eta 16,1 milioi eurora iritsiko da (horren barruan, familia-sarerik gabeko gazteentzako "Trapezistak" programa edo euskal harrera-ereduaren indartzea nabarmentzen dira), Gizarte Zerbitzuen aurrekontua 85,1 milioi eurokoa izango da (+18M€), eta Familia eta Komunitate Politikara, berriz, 152 milioi euro bideratuko dira (+79,3M€), 0-3 urteko seme-alaba bakoitzeko hileko 200 euroko laguntzak barnean hartuta. 41,5 milioi euro GLLetarako izango dira, eta 70,9 milioi euro Espetxeetarako.

Kultura eta Hizkuntza Politika: 353,2 M€ (+30,8 M€): Sail honen barruan, 182,9 milioi euro EITBri dagozkio, hau da, 21 milioi euro gehiago. Igoera hori Miramongo erreformari, energia-igoerei, emisio-eskubideei, digitalizazioari, eduki-estrategia berriei eta abarri aurre egitera bideratuko da. Kulturaren Sustapenak 36,6 milioi euro izango ditu, Kirolek 12,7 milioi euro, eta HABEk 49 milioi euro inguru.

Gobernantza Publikoa eta Autogobernua: 171,9 M€ (+32,8 M€): 2023. urtean, Sail honek apustu irmoa egingo du digitalizazioaren alde, eta 55,6 milioi

euro bideratuko ditu Informatika eta Telekomunikazioetara. Bestalde, Zerbitzu Orokorren programari dagokion aurrekontua 38,9 milioi eurokoa izango da (+10,2 M€), energia-gastua barnean hartuta. IVA Pek 21 milioi euroko aurrekontuarekin jarraituko du.

Ekonomia eta Ogasuna: 138 M€ (+9,5 M€): Banku-gordailuengatiko komisiotei lotutako gastua (7 milioi eurokoa) desagertu egin da, eta ELKARGI SGR-rekin ETEak finantzatzeko programaren interesen dirulaguntza, berriz, handitu egingo da eta 16 milioi eurora iritsiko da. Finantzen Euskal Instituturako ekarpena 60 milioi eurokoa izango da. Eustatek, berriz, 16,1 milioi euroko aurrekontua izango du.

Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa: 63,9 M€ (+11,8 M€): 22 milioi euro Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritzara bideratuko dira, 21,5 milioi euro Merkataritzara, eta 6,5 milioi euro Kontsumora. Sail honek, halaber, MRR baliabideak jasoko ditu (9,8 M€) jasangarritasun turistikoko planetarako.

Lehendakaritza: 49 M€ (+1,9 M€): honako zuzendaritza hauek dagozkie: Gazteria (10,9 M€), Kanpo Harremanak (11,9 M€), eta Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren programa (4,9 M€). Nazio Batuen Euskadiko Tokiko Idazkaritzarako 1,45 milioi euro ere jasotzen ditu aurrekontuak.

5. 2023ko inbertsio publikoa, Sailaren arabera

	M€	ALDEA
Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena	581,1	68,8
Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak	531,7	157,9
Hezkuntza	220,5	54,0
Osasuna	122,4	12,2
Ekonomia eta Ogasuna	81,2	16,9
Segurtasuna	46,2	0,1
Kultura eta Hizkuntza Politika	41,2	3,6
Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	34,2	5,9
Lana eta Enplegua	13,8	-7,9
Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	16,1	6,2
Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	15,4	9,5
Lehendakaritza	3,3	0,5

**inbertsioaren gainerakoa erakunde autonomoetan dago.*

Hezkuntza

3,5 MILIOI EURO UDAL HAUR ESKOLEN MANTENURAKO

- **Egun Euskadiko 13 udalerritan ari dira lanean udal titulartasuneko 18 haur-eskola**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2022-2023 ikasturtean 0 eta 3 urte arteko umeentzako haur eskolen titular diren toki korporazioei dirulaguntzak ematen dizkien Agindua onartu du gaurko bileran. Hezkuntza Sailak 3,5 milioi euro bideratzen ditu deialdi honetarako.

Dirulaguntzak aipaturiko haur-eskola horiek mantentzeko kostuak finantzatzeko laguntza gisa emango dira, izan ere, haur eskola hauek eskaintzen duten zerbitzua funtsezkoa gertatzen baita euskal familia askorentzat, familia bizitza eta lan bizitza bateragarri egin ahal izateko.

Laguntza hauen helburua da kostuak murriztea batetik, eta 0-3 urte arteko haurrentzako udal titulartasuneko haur-eskolen gaur egungo eskaintza sendotzea, bestetik. Era berean, bazterrean utzi ezin den beste helburu bat da ikasleei kalitatezko hezkuntza eskaintzea ere, hezkuntza-maila horiei dagozkien gaitasunak eta ezagutzak jasotzea ahalbidetuko dien hezkuntza. Udal bakoitzak jasoko duen ekarpen ekonomikoa, bere titulartasuneko haur-eskoletan okupatutako plazen arabera zehaztuko da.

Euskadin, 13 udalerririk dituzte egun euren titulartasuneko haur-eskolak, 18 haur-eskola orotara 13 udalerritan. Haur-eskola horiek ez daudenez Haurreskolak Partzuergora bildurik, dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke. Joan den 2021-2022 ikasturtean, mila ume pasatxo izan dituzte euren geletan.

Hezkuntza Sailak eta Euskadiko udalek –laguntza hauek xede dituzten haur-eskolen titular badira, beti ere-, lankidetzeta-hitzarmenak sinatuko dituzte deialdi hau egoki kudeatzeko.

Hezkuntza

532 PLAZA ATZERRIAN INGELES, FRANTSES ETA ALEMAN IKASTAROAK EGITEKO

- Hiru asteko iraupeneko ikastaroak dira, 2023ko udan burutuko direnak; DBHko 3. eta 4. Mailetako eta Batxilergoko ikasleei zuzenduak
- Hezkuntza Sailak 847.718 euro bideratuko ditu deialdi honetara

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2023ko udan Alemanian, Frantzia, Irlandan eta Erresuma Batuan hizkuntza ikastaroak egiteko egonaldietarako deialdia egiten duen Agindua onartu du gaurko bileran. 532 plaza eskaintzen dira, DBHko 3. eta 4. mailetako eta Batxilergoko lehen eta bigarren mailetako ikasleei zuzenduta. Deialdi honek 847.718 euroko diru-kopurua du.

532 plaza horietako bat eskuratu nahi duten ikasleek bete beharreko baldintzak, honako hauek dira:

- Aukeratutako hizkuntzan edo hizkuntzetan (ingelesa, frantsesa edo alemana) gutxienik 7 puntuko nota eskuratu izana aurreko ikasturtean.
- Aurreko ikasturteko batz besteko nota eta hautatutako hizkuntzan jasotako notaren arteko batuketan 16 puntu edo gehiago lortu izana.
- Ikasleak eskatzen duen plazari dagokion hizkuntza ikasia izan behar du aurreko bi ikasturteetan.
- Ikasleak 2023an gehienez ere 19 urte betetzea.

Plazen banaketa egiterakoan, kontuan izaten dira bai eskaera egin duen ikaslearen hezkuntza-maila (DBH edo Batxilergoa), eta baita haren familiaren egoera ekonomikoa ere (1 eta 2 tarteak). Ondorioz, honela banatzen dira 532 plaza horiek, arestian aipaturiko lau herrialdeetan:

Herrialdea eta hizkuntza	1. tarte		2. tarte		Plazak, guztira
	DBH	Batx.	DBH	Batx.	
1. Ingelesa Irlandan	70	83	20	25	198
2. Ingelesa Erresuma Batuan	88	107	32	37	264
3. Frantsesa Frantzia	30		20		50
4. Alemana Alemanian	10		10		20
Plazak, guztira	388		144		532

Lehen tarteetan, aurreko ikasturtean beka jaso zuten ikasleak hartzen dira kontuan, eta bigarren tarteetan berriz, bekarik jaso ez zuten ikasleak.

Plaza bakoitzak, ondorengo gastuak hartzen ditu barnean: joan etorriko bidaia, Euskadiko hiru hiriburuetatik egonaldia burutuko den herrialdeko hiriraino, bidaia aseguru, matrikula eta ikasketa materiala, ostatua, jatorduak eta ikastaroa burutuko den ikastetxerako hiri-garraioa.

Hezkuntza Sailak Agindua EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunean irekiko du eskaerak aurkezteko epea –hilabeteko iraupeneko-, aurreikuspenen arabera azaroaren erdi aldera.

Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente

EL GOBIERNO VASCO PUBLICA LA AYUDA ARDOINB POR VALOR DE 1.110.000 EUROS, QUE COMPLEMENTA EL MARCO DE AYUDAS DE OCM INVERSIÓN

- **Para empresas vitivinícolas, asociaciones de productores y organizaciones interprofesionales**
- **Esta ayuda está regulada bajo el régimen de ayudas de minimis**

El Gobierno Vasco ha aprobado la ayuda ArdoINB con una dotación de 1.110.000 euros para ampliar la financiación del programa OCM Inversión correspondiente al ejercicio 2022, y poder así atender las solicitudes de aquellas empresas que, por agotamiento de fondos, no han podido acceder a estas ayudas en su anterior convocatoria a pesar de cumplir los requisitos.

El objetivo de esta ayuda es continuar con el apoyo a las inversiones que se realicen en el sector vitivinícola con objeto de mejorar el rendimiento global de las empresas, su adaptación a las demandas del mercado y el incremento de su competitividad.

Este apoyo, regulado a través de una Orden de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente será financiado exclusivamente con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Así, el importe total de la ayuda concedidas a una única empresa no excederá de 200.000 euros durante cualquier periodo de tres ejercicios fiscales.

Las entidades destinatarias son las empresas vitivinícolas, las organizaciones de personas productoras vitivinícolas, las asociaciones de dos o más personas productoras, con personalidad jurídica, y las organizaciones interprofesionales.

Costes subvencionables

Se considerarán subvencionables los costes de las siguientes acciones:

- Construcción, adquisición o mejora de bienes inmuebles.
- Compra de nueva maquinaria y equipo hasta el valor de mercado del producto.
- Costes generales vinculados a los gastos contemplados en las letras, tales como honorarios de arquitectos, ingenieros y asesores, así como estudios de viabilidad, con el límite del 8% del presupuesto aprobado para la operación de inversión.
- La adquisición o el desarrollo de soportes lógicos de ordenador y la adquisición de patentes, licencias, derechos de autor y el registro de marcas colectivas.

Plazo de solicitud

El plazo de presentación de las solicitudes será de quince días a partir del día siguiente al de la publicación de la Orden en el Boletín Oficial del País Vasco y estarán dirigidas a la persona titular de la Dirección de Calidad e Industrias Alimentarias.

Se presentarán accediendo a la sede electrónica de euskadi.eus, y las especificaciones sobre como tramitar la solicitud, justificaciones y demás documentación estarán disponibles en la siguiente dirección de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi:

<https://www.euskadi.eus/servicios/> (Ref: 1091804)

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/> (Ref: 1091804)

Economía y Hacienda

EL PROYECTO DE PRESUPUESTOS DE EUSKADI 2023 ASCIENDE A 14.250 M€, GARANTIZA POTENTES POLÍTICAS SOCIALES E IMPULSA LA ACTIVIDAD ECONÓMICA PARA GENERAR EMPLEO

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el Proyecto de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2023, que asciende a 14.250,7M/€, lo que supone un incremento del 8,7% con respecto al aprobado en 2022, con un aumento de 1.142M€. Este proyecto de presupuestos destina un 76% del total (10.254,6M€) a políticas sociales, siendo Salud y Educación los departamentos que mayor incremento presupuestario presentan, seguidos de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, Trabajo y Empleo e Igualdad, Justicia y Políticas Sociales. El Gobierno Vasco mantiene su firme apuesta por la inversión pública que supera los 1.800M€ (un 14,8% más que en 2022) y por la I+D+i, con un incremento del 12% hasta alcanzar los 658,4M€ (70,6M€ más que en 2022).

El presupuesto de 2023 es el primero que incluye desde su elaboración ingresos de Fondos Europeos MRR, que ascienden a 260M€ y se corresponden a las actuaciones que en este momento los distintos departamentos han de materializar para cumplir los compromisos asumidos con Europa.

“Los mimbres de este proyecto de presupuestos son muy sólidos y su solvencia garantiza que Euskadi va a ser capaz de mantener el nivel de sus servicios públicos, impulsar la actividad económica y generar empleo, para hacer frente a la turbulenta situación económico social que nos está tocando vivir”, ha asegurado Azpiazu.

El presupuesto de 2023 recoge también el compromiso firme con igualdad de género que abarca el 17%, medio punto más que en los presupuestos de 2022, buscando su presencia en el conjunto de las políticas públicas.

El día 28 de octubre el proyecto de presupuestos será registrado en el Parlamento Vasco, y los consejeros y consejeras comparecerán del 2 al 4 de noviembre, y tras estas comparecencias se abrirá la oportunidad de contrastar con EH Bildu, Elkarrekin Podemos y PP-Cs las posibles alianzas. La fecha prevista de aprobación del mismo es el 23 de diciembre. “Espero que todos y todas prioricemos el bien común en estos momentos convulsos que requieren de responsabilidad, realismo y de una gestión pública sensata y sin estridencias”, ha matizado el Consejero.

1. Turbulencias planetarias en la economía

Respecto a la coyuntura económica, el Consejero se ha referido al complejo escenario económico internacional que se da, y ha hecho alusión a las magnitudes ofrecidas hace escasas dos semanas en el Consejo Vasco de

Finanzas Públicas de Euskadi.

El FMI ha resaltado que más de una tercera parte de la economía mundial se contraerá este año y el próximo, y que las tres mayores economías (Estados Unidos, la Unión Europea y China) continuarán estancadas. También es verdad que estas previsiones contemplan el crecimiento esperado para la economía mundial en 2022 sigue siendo del 3,2%, sin cambios respecto a la previsión de julio, porque corrige a la baja la tasa de Estados Unidos, pero eleva en medio punto el incremento esperado para la zona del euro, hasta el 3,1%.

Para 2023, la revisión a la baja del FMI es de dos décimas en el conjunto de la economía mundial, y esto sí nos afecta de lleno, porque para la zona del euro la revisión es de siete décimas respecto a la previsión de julio y de casi dos puntos en relación al documento de abril.

El Estado español crecerá un 1,2%. Con todo, no se puede hablar de estancamiento con esas tasas de variación, aunque sí en los casos de Alemania (-0,3%) y de Italia (-0,2%), los más perjudicados.

Respecto a la inflación, el IPC de septiembre en Euskadi se ha moderado hasta el 8,5%, casi dos puntos por debajo del dato anterior (10,3%), y la subyacente baja tres décimas, hasta el 6,1%, primer descenso desde abril de 2021. “Esto no deja de ser una buena noticia, y esperamos que continúe en esta línea descendente”, ha señalado Azpiazu.

El Gobierno Vasco revisó en septiembre sus previsiones de crecimiento, que han sido avaladas por la AIREF, estimando un crecimiento del 4,3% para 2022 y del 2,1% en 2023. La estimación del crecimiento potencial de la economía vasca antes de la pandemia era del 1,8%, como dato para poder ponderar las nuevas cifras.

En materia de empleo, el escenario actual anticipa una significativa reducción de la tasa de paro, que llegará al 8,8% de media este año y que bajará al 8,3% el próximo, lo cual se traduce en una creación de unos 26.000 puestos de trabajo este año y de unos 12.000 el próximo.

“Por tanto, cierta calma, aunque como dije hace dos semanas, seguimos siendo veletas de una guerra sin sentido, cuyas consecuencias económicas nos lastran a todos”, ha matizado.

2. Marco económico-financiero

Respecto a los ingresos, las aportaciones de las Diputaciones Forales ascienden a 11.901M/€, con lo que comparando las anualidades de los presupuestos 2022 y 2023, la cifra se incrementaría en 897M€ (+8,2%). Sin embargo, respecto del cierre estimado en el Consejo Vasco de Finanzas del 14 de octubre, crecen 354M/€ (+3%).

El importe proveniente de los Fondos Europeos -FSE, FEDER, FEAGA, FEADER y FEMP- asciende a 93M/€, mientras que se ha incluido un total de 260M€ correspondientes a ingresos por MRR, además de que la ley

presupuestaria recogerá su integración a medida que vayan llegando más partidas.

Los objetivos de estabilidad presupuestaria establecen que en 2023 el déficit de la CAE sea el 0,6%. El escenario incluido en los presupuestos 2023 es de 419,5M/€ de endeudamiento neto, y unas amortizaciones de 778M/€, por lo que el endeudamiento bruto -neto+amortizaciones- se plantea en 1.197,5M/€. Por su parte, la deuda pública en 2023 no ha de ser superior al 13,5% sobre el PIB (11.075M€).

3. Inversión en I+D

El Gobierno Vasco aumentará el 12% el presupuesto de I+D+i, hasta los 658,4M€, que supone un incremento de 70,6 M€ respecto a 2022.

INVERSIÓN EN I+D 2023		
DEPARTAMENTOS	M/€	
Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medioambiente	306,6	<i>Tecnología, I+D agropesquero, transformación digital, energía renovable e hidrógeno, biotecnología...</i>
Educación	206,1	<i>Investigación y personal investigador Universidad, materiales avanzados, comunicación cuántica...</i>
Salud	68,2	<i>Investigación sanitaria y personal investigador Osakidetza, transformación digital...</i>
Gobernanza Pública y Autogobierno	24,6	<i>Administración electrónica y transformación digital y emprendimiento innovador</i>
Fondo estratégico de innovación	52,9	<i>Fondo Innovación en diversos departamentos</i>
	658,4	incremento del 12,02% (+70,6M/€ respecto a 2022)

4. Distribución por Departamentos:

Salud 4.638,9M/€ (+256,9M/€): este incremento se explica debido al crecimiento en Osakidetza hasta los 3.565M€ (+202M€), el crecimiento en investigación en 2,4 millones de euros hasta alcanzar 14,5 M/€ y el gasto en farmacia supone 559M€ (+29M€).

Educación 3.477,7M/€ (+242,7M€): La educación Infantil y Primaria asciende a 1.133M€ (+56,9M€); Secundaria y Formación Profesional 1.337,4M€ (+196,9M€); y enseñanza universitaria 374,9M€, de los cuales 362,9M€ corresponde a la UPV, que se incrementa en 22,9M€.

Trabajo y Empleo 1.107,8M/€ (+171,6M€): las grandes partidas de este departamento son Inclusión Social con 663,8M€ (+229,7M€), que incluye la RGI con 312M€, el IMV con 173M€ y la prestación complementaria de vivienda con 80M€, que contempla una cuantía de 300€ mensuales. La partida correspondiente a Lanbide es de 1.091,9M€.

Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medioambiente 849,8M/€ (+72,4M€): el mayor incremento de este departamento se da en Desarrollo Industrial que contempla 137M€ (+31M€); destacando las partidas para Tecnología con 211M€; Agricultura y desarrollo rural y litoral con 93,9M€; Promoción y Calidad Alimentaria con 60,3M€ y Protección al Medio Ambiente 44M€. La Spri contará con un presupuesto de 129M€.

Seguridad 746,3M/€ (+21,2M€): en este departamento, la partida destinada a la Ertzaintza es de 709,2M€, con un incremento superior a los 23M€.

Planificación Territorial, Vivienda y Transportes 754,4M/€ (+189,9M€): el impacto de los fondos europeos MRR es claro, con una cuantía de 62,3M€ para los distintos programas que ha de desarrollar. Junto a ello, destaca el programa de Infraestructuras y Gestión de Transporte, con 321,8M€ (+24,7M€); y Vivienda 184M€. La cuantía presupuestada para la Y vasca y Variante Sur es de 135,4M€. El programa Gaztelagun contempla 16M€, la aportación al CTB es de 54,9M€ y ETS recibirá una aportación de capital del departamento de 115M€.

Igualdad, Justicia y Políticas Sociales 637,8M/€ (+114,7M€): Emakunde contará con un presupuesto de 7,8M€, la Agencia de Cooperación al Desarrollo con 50,7M€; Inmigración prácticamente duplica su presupuesto hasta los 16,1M€ destacando el programa “Trapezistak” para jóvenes sin red familiar o el refuerzo del modelo vasco de acogida ; Servicios Sociales absorbe 85,1M€ (+18M€) y la cuantía dedicada a Política Familiar y Comunitaria se eleva a más de 152M€ (+79,3M€), incluyendo las ayudas de 200€/mes por hijo de 0-3 años. 41,5M€ para AES e incluye 70,9M€ para Instituciones Penitenciarias.

Cultura y Política Lingüística 353,2M/€ (+30,8M€): en este departamento, 182,9M€ corresponden a EITB (+21M€) cuyo incremento se da para hacer frente a la reforma de Miramon y a incrementos de energía, derechos de emisión, digitalización, nuevas estrategias de contenidos, etc; Promoción de la Cultura cuenta con 36,6M€; Deportes 12,7M€ y HABE contará con un presupuesto cercano a los 49M€.

Gobernanza Pública y Autogobierno 171,9M/€ (+32,8M€): en 2023 este departamento realizará una fuerte apuesta por la digitalización contemplando 55,6M€ en Informática y Telecomunicaciones; e incrementa el presupuesto del programa Servicios Generales hasta los 38,9M€ (+10,2M€), que incluye el gasto en energía. El IVAP mantiene un presupuesto de 21M€.

Economía y Hacienda 138M€ (+9,5M€): Desaparece el gasto por comisiones por depósitos bancarios de 7M€ y se incrementa la subvención de intereses del programa de financiación a pymes con ELKARGI SGR hasta los 16M€. La aportación al IVF será de 60M€. Eustat manejará un presupuesto de 16,1M€.

Turismo, Comercio y Consumo 63,9M/€ (+11,8M€): 22M€ destinados a la dirección de Turismo y Hostelería, 21,5M€ destinados a Comercio y 6,5M€ a Consumo. Este Departamento también tiene intensidad de recursos MRR - 9,8M€- para planes de sostenibilidad turística.

Lehendakaritza 49M/€ (+1,9M€): asume la Dirección de Juventud con 10,9M€; Acción Exterior cuenta con 11,9M€ y el programa de Transición Social y Agenda 2030 con 4,9M€. Incluye 1,45M€ para el Secretariado Local de Naciones Unidas en Euskadi.

5. Inversión pública por Departamento 2023

	M€	DIF.
Des.Económico, Sostenib.y M.Ambiente	581,1	68,8
Plan.Territ., Vivienda y Transportes	531,7	157,9
Educación	220,5	54,0
Salud	122,4	12,2
Economía y Hacienda	81,2	16,9
Seguridad	46,2	0,1
Cultura y Política Lingüística	41,2	3,6
Igualdad, Justicia y Políticas Sociales	34,2	5,9
Trabajo y Empleo	13,8	-7,9
Turismo, Comercio y Consumo	16,1	6,2
Gobernanza Pública y Autogobierno	15,4	9,5
Lehendakaritza	3,3	0,5

**el resto de la inversión está en OOAA*

Educación

3,5 MILLONES DE EUROS PARA EL MANTENIMIENTO DE ESCUELAS INFANTILES DE TITULARIDAD MUNICIPAL

- **13 municipios vascos cuentan en la actualidad con 18 escuelas infantiles de su titularidad**

El Consejo de Gobierno ha aprobado, a propuesta del consejero de Educación, la Orden por la que se convocan para el curso 2022-2023 ayudas económicas a las corporaciones locales titulares de escuelas infantiles de 0 a 3 años. El Departamento de Educación destina 3,5 millones de euros para esta convocatoria.

Estas subvenciones se concederán como ayuda para financiar los costes de mantenimiento de las citadas escuelas infantiles, que prestan un servicio esencial para facilitar la conciliación de la vida personal, familiar y laboral de muchas familias vascas.

Estas ayudas tienen por objeto aminorar los costes y consolidar la actual oferta en escuelas infantiles para niños y niñas de 0 a 3 años, así como ofrecer a los alumnos y alumnas una enseñanza de calidad que permita el desarrollo de sus capacidades personales y la adquisición de conocimientos y competencias acordes con esta etapa educativa en la red pública. Las aportaciones económicas a cada ayuntamiento beneficiario se fijarán en función de las plazas ocupadas en la escuela infantil de titularidad municipal.

En la actualidad hay en Euskadi 13 municipios que cuentan con 18 escuelas infantiles de su titularidad y que, al no encontrarse incluidas en el Consorcio Haurreskolak, pueden ser beneficiarias de estas ayudas. El pasado curso 2021-2022 asistían a sus aulas algo más de un millar de alumnos y alumnas.

El Departamento de Educación y los ayuntamientos de Euskadi titulares de las escuelas infantiles objeto de estas ayudas, suscribirán convenios de colaboración para la gestión de la convocatoria.

Educación

532 PLAZAS PARA CURSOS DE INGLÉS, FRANCÉS Y ALEMÁN EN EL EXTRANJERO

- Se trata de cursos de idiomas de tres semanas de duración, a realizar durante el verano de 2023, dirigidos al alumnado de Bachillerato y 3º y 4º de ESO
- El Departamento de Educación destina un importe de 847.718 euros a estos cursos

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta del consejero de Educación, la Orden por la que se convocan 532 plazas para la estancia y realización de cursos de idiomas en Alemania, Francia, Irlanda y Reino Unido durante el verano de 2023, dirigidas al alumnado de de 3º y 4º de ESO y de 1º y 2º de Bachillerato. Esta convocatoria cuenta con un importe de 847.718 euros.

Los alumnos y alumnas interesados en solicitar alguna de estas 532 plazas han de cumplir los siguientes requisitos:

- Haber obtenido en el curso anterior una nota mínima de 7 en el idioma o idiomas seleccionados (inglés, francés o alemán).
- Alcanzar, además, una puntuación total igual o superior a 16 en la suma de la nota media del curso anterior y la nota del idioma solicitado.
- Cumplir 19 años como máximo en el año 2023.
- Además, el alumno o alumna debe haber cursado el idioma para el que solicita la plaza en los dos cursos anteriores a la fecha de solicitud.

La distribución de las plazas se realiza teniendo en cuenta los niveles educativos del alumnado solicitante (ESO o Bachillerato) y la situación económica de las familias de éstos (Tramos 1 y 2). Por lo tanto, esas 532 plazas quedan distribuidas en cuatro países, de la siguiente manera:

País e idioma	Tramo 1		Tramo 2		Total plazas
	ESO	Bach.	ESO	Bach.	
1. Inglés en Irlanda	70	83	20	25	198
2. Inglés en Reino Unido	88	107	32	37	264
3. Francés en Francia	30		20		50
4. Alemán en Alemania	10		10		20
Total plazas	388		144		532

En el tramo 1 se encuadran aquellos alumnos y alumnas que el pasado curso hayan obtenido beca, mientras que el tramo 2 comprende al alumnado que no obtuvo dicha beca.

Cada plaza convocada incluye los siguientes conceptos: viaje de ida y vuelta desde las tres capitales de la CAV hasta el lugar del país en el que transcurrirá la estancia, seguro de viaje, matrícula y material escolar del curso, alojamiento, manutención y transporte urbano al centro donde se impartirá el curso.

El Departamento de Educación abrirá el plazo de presentación de solicitudes – de un mes de duración- al día siguiente de la publicación de la convocatoria en el BOPV, previsiblemente a mediados de noviembre.